


ZER
ALDIZKARIA

419. zenbakia
2015 URRILLA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

GAURKO DEMOKRAZIA




**Euskal Erriko
Memoria Historikoa**

**Kristobal Kolon,
Nafarroako IVn Karlos
erregearen Semea izan
ote zan? (V)**



BILBAO ATHLETIC

**SAGRADA FAMILIA
BARCELONA**



Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2015-2016 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkiña : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

EUSKAL ERRIKO MEMORIA HISTORIKOA

(2014KO AZARAOREN 24KO ITZALDI LABURPENA)

Bilbon, Erika Uranga Basterrak, 2014ko azaroaren 24an

Euskal Erriko memoria historikoaren eskuratze prozesua, geure kasuan, 1936ko estatu-kolpearen osteko gerraren eta Espainiako franquismo diktaduraren ondoriozko errepresioaren inguruko “egi osoa” billatzeko prozesua da.

HISTORIAREN MEMORIA

Euskal Errian, memoria historikoaren sorreraz eta billa-kaeraz itz egiterakoan ala ere, kontzeptu beraren izaeraren argipen batzuk bear dauz. Termino edo kontzeptu historikoaren izaeratik aldendu, eta kontzeptu soziopolitiko bat dalaren ziurtasunez, memoria historikoak sortutako mar-ko orokorra irudikatu.

Memoria berak bi adiera edo definizio dauz. Alde batetik, oroitzeko baliatzen dan aalmen psikikoa da eta, bestetik, oroitzeko aalmena. Bigarren definizio onetatik abiatuta, oroimena soziala be badala azpimarratzen da, taldeko oroimena biurtzen dalako.

Ildo orretatik, orainaldia iraganeko elementuen berrera-inkuntzan osatuta agertzen da. Orren ondorioz, identitatea sortzen da, aldaketa soziala aalbidetzeko oinarriak zeazten dira, iraganeko gertakariei zilegitasuna emoten jako eta-bar. Elementu orretxek, urrengo belaunaldiei transmititzen jake, oroimen kolektiboa sortuz.

Iraganari erreparatzeko zergaitik nagusi bi izan oi dauz gizataldeak. Alde batetik, arrazoi ideologiko, identita-rio edo politikoei jarraiki, orainaldiko baldintzek iragana berriztar daikie. Bestetik, orainaldiko bizipenek iragana ezagutzeko premia sortu aal dabe. Au da, iraganaren ira-kurketa jakiñak egungo jendartearen oñarriak eta mugak ezartzen dabez

Orregaitik, memoria historikoen definizioak iraganaren ainbat kontaketa biltzen dauz. Alde batetik, oroimena da iraganaren kontaketa mitikoa. Historia, bestalde, iragana-ren kontaketa urrun eta kritikoa da. Orregaitik, memo-ria historiko esamoldea oximonorontzat artu izan dabe egileek, au da “ osagai bi edo zati antitetiko, ustez batera eziñak, edo elkarren kontrako zentsua dabezanak alkar-tzea”.



MEMORIA HISTORIKOAREN DEFINIZIOA

Orrenbestez, memoria historikoa kontzeptua historikoa ez dala azaldu bear dogu, kontzeptu soziopolitikoa baño Azken batean, bizi garan oraiñaldiaren kotzientzia historikoa da. Historia ofizialak isildutakoaren miñez, berreskuratu nai dan, komunitate baten berezko historia.

Memoria historikoaren definizioa, 1936ko estatu-kolpearen osteko gerraren eta frankismoaren ondorengo errepresioak eragindako biktimen memoriaren eskuratzeari deritzo. Kontrara, memoria historikoa aztertu bearreko azken muga zein dan erabakitzeke zailtasunak dagoz. Franko iltzean, Frankok bere oi ñordekoa izendatuta utzi ebazan. 1969an, Juan Carlos de Borbón izendatzean. Gerora auteskundeak egon ziran, eta gerora frankismo garaiko pertsonai batzuk mantendu ziran. Beraz, amaiera oraindik ere, kontsetsu bageko gaia da.

Memoria historikoa kontzeptu gisa, 1936 estatu-kolpea eta 70 urtera sortutakoa da, Estatu-kolpea eta 64urtera ain zuzen bere, 2000.urtean, Prioranza del Bierzon (Leon, Espainia), diktadura garaiko ildakoen leenengo indusketagaz. Leen aldiz, 1936ko urriaren 16an fusilatutako amairu gizonezkoen gorpuak berreskuratzeko indusketa lanak metodologia antropologikoaz egin ziran. Aranzadi Zientzia Alkarteak zuzendutako indusketak.

Urte orretatik aurrera, kontzeptua indartuz joan zan. Memoria historikoa berreskuratzeko lanetan diarduteko bidea zabaldu zan.

Leenengo lan orren segidan, Arrasate eta Zaldibiako udalek ere, fusilatutako eta desagertutako beraien erritarren billaketak aalbidetzeko indusketak eskatu ebezan.



2002ko abenduan, Ibarretxe leendakariak 1936ko gerran desagertutako pertsonen illobiak ikertzeko eta aurkitzeko batzordea eratu eban, Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi Zientzia Alkarteak alkarlanean jarduteko. Euskal Erri maillan instituzionalki emondako leen urratsa izan zan.

Orrenbestez, erakundeek 1936ko gerran fusilatuen gorpuak berreskuratzeko ekimenean parte artu arte ez ziran tokian tokiko alkarteak sortu. Memoria historikoa kontzeptua eta eskuratzea bera, gaian artzen ebezan alkarteetan ez beinik-bein. Alan da be, alkarte orreek osatu baiño 30 urte leenago bere, izan ba ziran 1936ko estatu-kolpearen ondoren etorritako errepresioaren biktimen eskuratzeko tokian tokiko ekimenak.

MEMORIA HISTORIKOAREN LEGERIA ETA GAUR EGUNGO BERRESKURATZE LANEN MARKO LEGALA

2000.urtean Prioranza del Bierzon (Leon) egindako lanen indusketak eta urte bira, 2002.urtean Eusko Jaurlaritzak, eskubideen urraketarako baliabideak bideratu ebazan. 2002ko azaroaren 19an, "Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun gabetzea jasan eben pertsonentzako konpentsazioari buruzko dekretua" onartu eben Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Sailak. Orren bitartez, frankismoak zilegitasunik gabe espetxeratu ebezanak kalte-ordainak eskeintzeko aukera izan eben. Dana dan frankismoaren errepresaliatuek dokumentazioa eskuratzeko zailtasunak izan ebezan, besteak beste, artxiboek Franko il eta 27 urtera oraindik militarrek izaten jarraitzen ebelako. Gaiñera, Gizarte Sailak ez eban aurrekontu naikorik aurreikusi. 2006.urtean, zailtasunak zuzentzeko esperantzaz, dekretua zuzendu egin zan.

Urte bereko abenduan, len aipatutako, eta Euskal Erri maillan instituzionalki lege aldetik emon zan lenengo pausua, Ibarretxeren Eusko Jaurlaritzak, 1936ko gerran fusilatutako ildakoen gorpuak ikertzeko eta berreskuratzeko sortu zan batzordea izan zan.

Bestetik, eta Euskal Erri maillari dagokionez, Nafarroako legebiltzarrak adierazpen bakarra egin dau. Legebiltzarrak, 2003ko martxoaren 10ean,

Nafarroan fusilatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagokien ordain morala emoteko adierazpena onartu eban; UPN abstenitu egin zan.

Espainiako Estatuari dagokionean, Espainiako Kongresuak legezko ekimenaren bidea artu eben 2002.urtean. Madrilgo Diputatuen Kongresuan, 2002ko azaroaren 20an ain zuzen be, Franco il eta 27 urtera, 1936ko gerraren errepresioa gaitzesten eban mozioa ao batez onetsi zan. PP alderdiko diputatuek salbu. Era berean, Europako Parlamentuak Estatu-Kolpearen 70.urteurrenean egindako gaitzespen adierazpenaren aurka azaldu zan.

Espainian be, Rodrigéz Zapatero (PSOE) Espainiako presidente izendatu eta gitxira, Memoria historikoaren Legea lantzeko batzordea abian ipiñi eban kongresuak. Legea 2007ko urriaren 31an onartu zan. Memoria Historikoaren legeak 5 neurri ekarri ebazan.

- 1.- 1968tik 1977ra bitartean askatasunaren eta demokraziaren alde erailadako senitartekoez kalte –ordaiña kobratzea aurreikusitako eban, 1977ko Amnistia Legeak ez ebazalako amnistiatu.
- 2.- Ikur frankistak, artistikoak zein erlijiosoak, ezabatzeak aukera.
- 3.- Erorien Arana, leku erlijiosoa billakatzeko erabakia. Orrela, faxismoaren goraipamena bertan debekatu zan eta garaituen oroimena bertan omentzeko alegiña bere eskatu zan.
- 4.- Estatuak obi komunak identifikazioan lagunduko ebala zeaztu zan, baiña desobiratzeak “unean unekoak” izango zirala iragarri bere egin eban.
- 5.-Nazioarteko brigadistek zein errefuxiatuen seme-alabek eta lobek Espainiako naziokotasuna izan daitekela onartu zan.

Legezketasun onen orrenbestean, erakundeek biktimen aitortza publikoa billatu dabe, baiña Memoria Historikoaren Legeak (2007) aldiz, oroimenaren eremu pribatua azpimarratzen dau. Ondorioz baliabideak historia ezagutzera bakarrik destinatzen dira.

Ala ere, frankismoa epaitzeko traba nagusia da frankismoak berak bere burua 1977ko Amnistia Legean zuritu ebela. 1936ko estatu-kolpea eta ondoriozko errepresioa legearekin preskribituta geratzen zala esanez. Alan da be Nazioarteko zuzenbideak, genozidiodia eta gizateriaren aurkako

krimenak iñoiz preskribitzen ez dirala ebatzi dau, eta beraz ainbat estatutan emon ziran Amnistia Legeak bertan beera geratu dira. Orduetik aurrera, nazioarteko gatazkak kudeatzeko, justizia trantsizionala abiatu da. Orrela, oiko justiziaren gaiñetik, giza eskubiden urraketa sistematikoa zigortzen da.

Egiaren Batzordea da beraz, nazioartean sortu dan baliabide eraginkor barria. Ez dakar berradisketzerik, baiña gatazka bideratzeko ezinbesteko tresna billakatu da.

Orrez gain, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) bikerako eskubidea giza eskubide lez jasota dauanez, 1936ko Gerran eta Frankismoan desagertutako ena auzia bertatik bertara aztertuko dau. 2013an iada, Gateizen egon da, lekukotza batzuk jasotzeko.

2012.urtaetik aurrera bere, Argentinako kereilla bere martxan da. Maria Servini epaileak frankismo garaian erantzunkizuna izan eban eta oraindik bere bizirik dagozan 5 pertsonen estradizioa eskatuz. Azken illabeteetan ori dago, egun egunean.

BIBLIOGRAFIA

Euskal Erriko Oroimen historikoa UEUn emondako ikastarorako prestatutako materiala. Egilea: Maria González Gorosarri (2013ko irailaren 25a. Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0



Andres eta Jospñaxi

Andres:

O Jospñaxi ondo jar zazu zure etxeko antena, txantxa ez baita izango noski gaur esango dizutena; amoriozko gosean nabil eta palta zait jatena, orain mingaiñak esango al du biotzean daukatena?

Jospñaxi:

Andres lagun zure bertsoari eman nai diot segira, badakit ondo zaintzen dezula nere inguruko jira; zuk diozunez zure biotza gose eta egarri da, al dan azkarren zoaz bi oiek kendu litezken tokira.

Andres:

Ogeita amairu urte badauzkat ez nago oso gazterik, txoro aizeak joana nago ez det olako usterik; zutzaz pentsatu gabe ez daukat egunik eta asterik, gose au kenduko dun baratza ez daukazu zuk besterik.

Jospñaxi:

Nik dadukaten edertasunak Andres liluratuta zaitu, argi eta garbi esango dizut eta mesedez aditu; estudioak asi nituan oraindik ezin amaitu, karrera bat bukatzerako bestera ezin naiz abiatu.

Andres:

Estudioak maitasunari ez dio ezer galerazten, ni lanean da zu len bezala jarrai zindezke ikasten; eguneroko ogi zuria zintzoak du irabazten, maitetasunak alde askotatik jarraitzen du aberasten.

Jospñaxi:

O Andres ni engañatzeko badezu ipui ederrik, ziartuenik zugaitz onari etzaio palta adarririk; biok ezkondata jartzen bagera ez gera izango bakarrik, da eltzeak olioia bear du ez du liburu bearrik.

Andres:

Zorionean orrelakorik baletor biar edo etzi, baratz on batek landare batzuk ez ote ditu merezi? Bion artean joko bat dago eta beste milla auzi, nik berdin-berdin maiteko zaitut galdu edo irabazi.

Jospñaxi:

Ezkonduzea Andres ez dezu auntzan gaueko ezttula, arren da arren etzazu uste engañatuko nazula; Jaunari erregutuko diot suerte izan dezazula, eta pentsatu denbora galduak etorkizunik ez dula.

Andres:

Beraz alperrik juzkatu dezu zugan pentsatzen egona, neretzat beti urrun izan da mundu ontan zoriona; ikusitzen det bion artean tarte aundia dagona, inpernuraiño jetxi bai nazu zeru ertzean nengona.

Jospñaxi:

Ni bakarrikan ez naiz munduan bada milla edertasun, bi gauz dirade bearrezko pakea eta osasun; ongi dakit nik beste batzuekin aukera nola daukazu, zugatik nozbait entzun nai nuke; "Suerte ona izan zun".

Andres:

Ongi diozu asarretzerik emen ez da komeniko, baita ere pentsa bearko degu ez garadela betiko; esango dizut zer pentsamentu dadukaten zurekiko: nik eskatuta ezbearrikan etzaizula etorriko.

Jospñaxi:

Era berean nik opa dizut pakea eta osasuna, pentsatzen det utsegin badet barkatuko didazuna; eta sinistu itzegiteko noiznai izango nazuna, ezkontzan bakarrik ez da izaten egizko maitetasuna.

Txomin Garmendia

Gaztetasuna labur

Garai batean gazte giñanak
aurkitzen gera zarturik,
gazte dalarik iltzen ez danak
ori dauka ziarturik;
laguntzan premin gertatu ere
noranaira bearturik,
miñik ezean pozik alare
Jaungoikoa eskerturik.

Berrogei urte pasa ezker
gaitza bada gurekiko,
ipurdikoa ez baldin bada
aneko edo gerriko;
modako daude kolesterola,
tensio edo uriko,
urte gutxitan izaten gera
akatsik gabe sasoiko.

Ogei urtera iritsitzean
ederra da bere jira,
zerbaitetara probatu bear
ezker edo eskubira;
neurritan ere pasa gindezke
jabetuz arrokerira,
denbora joanda damuak gero
sarritan izaten dira.

Berrogei urtera bitartean
nun galduko osasuna,
andik aurrera galdera askori
eman bear erantzuna;
arrazoitara erortzen dira
memoria ta zentzuna,
ikusirikan etsaia zala
ainguru uste genduna.

Zartu ezker eziña degu
nai dan eran gozatutzen,
baiña sendabidez orain bezela
len ez giñan osatutzen;
erremediorik etzutenak
ikus litezke sendatzen,
orri eskerrak gaur ari zaigu
zardadea luzatutzen.

Irurogei urtekoa len
oso zarra juzkatzen zan,
da gaur adin orretakoak
ikusi litezke dantzan;
“Zarran Egunak” ospatzen dira
egondu gabe zalantzan,
zarrak gaztetuz ikusi leizke
etorkizun esperantzan.

Illan azkena etorritzean
kartillak erreparatzen,
da batez ere basarritarrak
orrek ditu pozez jartzen;
saiatzen dira lengo kontuak
beren gogora ekartzen,
esanez, “Orrelakorikan guk,
asko ez gendun pentsatzen”.

Basarritarra jarduten zana
etenik gabe lanean,
gaur bezelako aurrerapenik
lanerako etzanean;
maiztar bizitzan apal askorik
nagusian esanean,
alderdi onak poz bikoitza du
txarra probatu danean.

Sinistu ezin diran aldeak
lengotikan oraingora,
garai batean zeñek pentsatu
gu igotzea ain gora?
Da Jaungoikoa eskertutzea
bidezkoa izango da,
zorionez ortarako ere
orain badegu denbora.


Bear bada orrela ez da bizi
kale gorrian dan ura,
illaren azken ezin iritsi
basarritarran modura;
baiña krixisa etorri zaigu
gaztediaren mundura,
billoba pranko moldatzen da gaur
aiton-amonen kontura.

Garai batean zan jendea zan
pamiliko arazoa,
bear bezela zaindutzea or
etzan gauza erosoia;
lan eta lan eramandakoa
bere bizitza osoa,
xentimorik gabe igaro bear
zardadean erasoia.

Gaztetasunak berekin ditu
konta ezin ainbat alderdi,
baiña zorigaitzez gaur-egunean
asko daduzkagu geldia;
kixi-aldi onek baztar asko
ez daduzka ederregi,
aiton-amon on asko dagota
esan bearko gaitzerdi.

Txomin Garmendia

GAURKO DEMOKRAZIA



Aurkezpena.

Gaurko Europan ta munduan erabilten doguzan demokraziak, ez daukie antzik bez, begirun aundiagaz jokatu bear dogun ekanduzko demokraziaren zentzua-gaz.

Demokrazia baktzari berea emotea da, danok egiz, ekanduzko oreka baten bizi gaitezen.

Eta or ez leuke egon bear txantxarrik, mundu onen giza guztia, bakoitzaren bere bizi bakarrean, eskubide bardiñe-koa dalako.

XIXn gizalditik aurrera, guda bidez erabagita ipini ziran laterriek daukie errua, menderatzaille lez, lapurtzazko ekintzara dagozelako bideratuta.

Giza lez doguzan izan-gaitasunak.

Mundu onetan, eta gu gizakitutakoak, sortzailleak ez garelako, Jainkoak mundu oneri bereztu eutsozan legezko bal-

dintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez, danontzat bardiñak diran legean.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura aundiz bete, bizi garen serbitzurako.

Bestela egiten doguzan gauza guztiak, oker, an-kaz gora, zentzubage ta edozein neurrian urten leukezelako, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur sortzen jakun lez, orekak leku guztietatik galdu ondoren.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak kontuan artu bear dituezanak gauza guztietan, ta ardura bardiñak, diruaren antolaketak egiten dabezenean.

Gaiak, beren Ludi irudiaren izaerarako daukazan mukulluak, orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, euren mukullu arteko-gintzan daukien erakarrezko indarra, eurak osagarrizkoak izan daitezen legea da, mundu au gurentzat, eragilletasunezko bizi tresneri bat izan daiten.

Orregaitik, mundu onetara jaioten garan guztiok, bear bearrezko ordezkartzaren arduran bardiñak izanda, Ludi onek daukazan berezta-

sundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari, lege bardiñean osagarritzkoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeakaz, zeregiñ bardiña daukagulako.

Eta Jainkoaren legeari begira egin bear doguzan gauza guztiak, azturazko maitasunean egiten ba doguz, bide orreitatik eraikitako etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, ta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik, berez agertzen dira, bear dabekanduzko askatasunaren orekan.

Danok begirun aundiko arduareak bear doguz, gai gizaren biziko egitamuak zentzuz gauzatzeko, eta elkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroan dagiguzan.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailetasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez, uts egin barik.

Gaurko politikuak, gaiaren eta gizaren eskubideak ez dabezelako erabilten, agindu egiten dabezan gauza guztietan sortzen diran korapilloakaz, gizartearen artu emoneko arloetan, dana agertzen da lokaztuta lez.

-Izadiko gaiaren orekan: Itsas errekkako urak eta mendi lur aizeak zikinduta.

-Eta gizakiaren arloetan: lan eza, lapurtza, negarra, gozea, gaitzaldi, elde edo izurriteak, eriotza, borrokak, aditu eziña, eta ardurabagekerizko itsutasun aundia.

Bizitzeko egiten doguzan gauzen mozkiñ guztiak, norkeriaren batzango edo agintari zaleen kontrolpean egon egiezen, guda indarrezko keiñada gogorrek erabilten dabez menperatzaillak, nai gai edo ta danon askatasunezko giza eskubidearen ardurak kentzeko, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura dabek eratarata betetea, eten bageko indarkerian.

Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran ostera bizitzarako bear zan guztia eraikitzen, euren poltzilluak beti berriz beteta eukiteko.

Baiña gaur, beste olango borroka bateri, eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzurtasunezko guzurak eten barik gero ta indar geiagorekin argitzen dira, eta orain, Nizean asmatu zan batzangotasunaren goitik berako agintaritzaren giza gorputza ori 1.687 urte norkeriz erabilia bereztasunaren aurka, guztiz ustelduta lez agertzen jaku.

Zergaitik ?

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen gara lez, argi erakusten jaku:

- a) Osagarritasunezkoak garela jaioten garan guztiak.
- b) Kundeatzaillak edo gai onen eragilletasunerako jaioten garala.
- d) Gure eragilletasunean kontuan artu bear doguzala, gai ta izaki guztien eskubideak.

Bakotzak, taldeek, leiñuek, auzoek edo eta errigizarteak euren bereztutasunezko aztura bidetik, izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereiztasunak, danok baieztu ezeren aitzakia barik, orokorrezko ulermen on batean agertzeko.

- e) Asmatzaillaren almenak bakarrik eukinda, gure izan gaitasunean ez daelako iñungo sortaslearen izatasunik:

Norkerizko alegiñetan, irazale, sortarazle edo ta sortzaillazko arloetan, iñorentzat ezeren le-



gerik egin bage, legezko alegiñ guzti orreik, Jainkoak bereztu eban legeditik artu bear doguz, euren kanpotik lege guzti orreik, menperatzaileak biurtzen diralako,

Ala... mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?.

Dirua, gure arteko ordearen tresneri bat bakarrik izanda, sasi jainkotu jaku.

Demokrazia.

Demokrazia, bakotxari berea emotea da, eta ez leuke egon bear zalantzarik ekanduzko arlo orretan, errigizarte lez ekanduzko orekan iraun gura ba dogu.

Gaurko munduaren ekanduzko arloetan, guztiz naastekatuta agertzen garan lez, gaurko mundu onen agintariak, geratu bear leukie orain bertan tresneriz doguzan diru etxe

edo diru kutxaren zeregiñak, arik eta, mundu onen Europa eta Ameriketako agintariak, gizaren eskubi-deakaz, benetan asi arte.

Zergaitik?

Gaurko Europaren menperatzailetasunezko ekintza amaitu bear dalako, 325eko urtetik ona Nizean norkeiz artu ziran batzangotasunezko erabagiak ez ba dira geratzen, beste guda gogor bat daukagulako aurrez-aurre, danon ikuspegian.

Orduan batu ziran esku baten, Europa eta ezagutzen zan mundu onetako giza ta errigizarte guztiak banaka eukezan ardurak, eta ortik aurrera gagoz konpondu ezinik, ez edozein gauza gaitik, mundu onen giza, berezko arduratik kanpo antolatzen dalako baizik.

Zeintzuk ote dira okerrezko iturburu orreik ?

Ludi-Fisiko oneitan egiñak egiñlea daukielako, ez dago sorburubageko mogimendurik.

Eta norkeiz eginako gauzak, goitik berako agindupean egiten diran lez, norkeizko emaitzan agertzen dira, guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako.

Eta munduaren norkeizko jakintsu nagusi orreik ugazaba lez senditzen diralako, dan guztia eurena dala uste dabe.

Orregaitik agertzen gara ainbesteko lapurkerian, gaur sortzen jakun lez.

Beste gauza zoragarri bat agertuko liteke, Ludi onen gizakien ardurak, bakotzaren eskuetan ba legoz.



Nortasunezko ardurean jokatuta antolatuko geunkez danon eskubideak, ta orren ondorios, danon askatasunezko eskubideak zainduko geunkez.

Besterik bear ote dogu ?

Orregaitik geratu bear dira gaur, munduko diru etxe edo diru kutxaren zeregiñ guztiak, arik eta askatasunaren demokrazizko ordezeko ardureak, gure ordezeko ardura nagusietan artzeko erabagitu arte.

Olantxe agertuten gara, Goiko Jaunak oiñarritu euskuezan legeen artean.

Bestela gaurko norkerietan indartutea baiño, ezta besterik egiten.

Alan, 325eko urtean Nizean, Erdi Aro guztian, XVIIn gizaldian, 1.789an Frantziko iraultzatik, XVII, XVIII, XIX, XXko gizaldietan, eta munduko bigarren guda nagusi ostean, errigizarteko eskubidearen aurka artu ziran norkerizko erabagi okerrakaz.

-325eko urtean Nizean artu ziran erabagiakaz, itsutasunezko ziñezkintzara bideratuta geratu gintzazalako, katolikotasunaren aberkidetasunean batzangotzeko.

-Erdi Aro guztian, indarkeri bidez gogortu egin zana.

-XVn gizaldian asita, erri-irasletasunean edo kolonigilletasunean guda indarrez asita.

-1.789ko urtean, “askatasun, legea, eta anaitasun” izenean egin zan iraultzazko antzerkiagaz.

Menperatzailearen norkerizko eritzian merkantil ta errigizartezko arloetan, antolamendu barriak bear ebezalako, batzangotasun orren bidez eurak gura eben diru ta lurak batu ta euren eratarata antolatzeko, bereztasunezko eskubidearen lege guztien aurka egiñez.

-XIX-XXn gizaldietan, berezko erritartasun gaiñetik eta guda indarrez, Europa ta munduan ezarri ziran gaur daukaguzan lapurrezko laterri onek.

-Bai eta munduko bigarren guda nagusi ostean, egin ziran astokeriakaz guztiz damu, berezko errigizarteentzat, eskubidearen askatasunezko erabagiak artuta.

-Guda otsaren aitzakiakin, borondate on guzti orreik pikutara bialdu zirenak, ostera, giza eskubidearen lapurketara aldatuz.

-Gaur, guzur eta maltzurtasunezko lokatz ontan, samaraiño zikinduta aurkezten gara.

Omosapiens, edo ulermenezko gizakiak ote gara ?.

Oraiñarte, asto utsak, bai beintzat.



Atutxa'tar Paul

Zornotzan, 2.015eko urtean Garagarrilla'ren 24'an

BILBAO ATHLETIC



Bilbao Athletic.

Caceres aldetik ibillita Trujillo errian aparteko eliza ederra ikusiko dogu Santa María la Mayor deritxona. Eliza onen torre alde batean, sekulako gauza arrigarri bat dago begi guztien aurrean. Zer? Gure Bilbao Athletikaren ikurra, oso ondo egiña, argin berezi baten eskuetatik sortua

Badirudi, 1973 urtean, elizaren torrean berriztasun lanak egiteran, Antonio jaunak, bilbotarra, eta Athletic taldearen zale porrokatuak, bere kabuz iñori ezer esan barik, egokiro zinzeldatu eban gure taldearen ikurra.

Laster asi izan erri osoan marmar garratzak ikur onen eta bere egillearen aurka, “Rana” ezizena jarriarik, eta batzuen aldetik, espetxea eskaturik. Baña, zorionez, Trujillo errira oporretan Bilbotar asko joaten diranez, asarrearen laño baltzak, udako eguzkiaren eta turistaren bidez, laster aizatu ziran. Eta orrez gain, ikur zorioneko ori jende askoren artean “txirenada” dala, baña turista barrien ekargarri eta erriaren ongarri. Bilbotarrak eta Athletic taldeak izen ona dauke Españako erri askotan.

Uriguen tar Zenon

Pasiotarra

SAGRADA FAMILIA BARCELONA

Bermeo, eta Sagrada Familia Barcelona.

Gure artean nork ez dau ezagutzen Eliza eder eta zoragarri ori? Euskaldunak ba ete daukagu zer ikusirik Eliza orren eraiketan? Bai, ona emen. Lenengo ta bein eza gutu daigun Teodoro de Anasagasti jauna, bermeotarra. Euskal Erriko arkitekto ospetxua izan zan gure aberrian eta erbestean.

Berak egiñak dira Madrid irian La Castellana, La Gran Vía eta Fuencarral. Malagan ere oso ospetsuak dira berak egiñiko Correos y Telégrafos. Bera izan zan Madridenten lenengoz ormigoia, erabilli ebana etxegintza ofizialtan.

Teodoro Anasagasti Bermeon jaioa 1880 urtean eta bere bizibidea Busturialde, Erroma, Madrid eta Barcelonan izan zan eta Erroman il 1.938 urtean.


Baña bere jenialtasuna agertu eban Barcelonako arkitektoen arteko Batzar Nagusian. Gaudi ospetsua 1926 urtean zendu zan eta Sagrada Familia umezurtz geratu zan eta bere laguntzailleak zaar-saritan moldaturik. Larrialdi garratz onetan Anasagasti jaunak batzarkideen aurrean erabaki sendo bat artu eban eliza eder orren langintzak guztien artean jarraitzeko. Asmo ori bete eta eraginkorra egiteko lenengo giza-barnea esnatu eta zirikatu bear da. Bere erabakia da elizaren planoari jarraipena emotea. Ortarako Catalan guztien biotzak astindu eta aupatuz, asi zan diru billa erriarentzat ain goragarri izango zan sekulako elizarik ederrena, gogoz jasoten. Elizaren torre barriak eta erriaren laguntza gorantza doaz, zorionez.

Anasagasti jauna ezagutu ebenak bermatzen dabe artea eta arkitekturaren leia bere biotzean josirik eukazala, laguneren artean zintzoa zala, eta bere asmoak ondo baño obeto betetzen ebazala

Ana Maria Ferrin idazlariak, eta Gaudiren artean berezia, bere liburu batean jakinarazten dau Teodoro Anasagastiren lan eraginkorra Gaudi eliza ederraren alde.

Mundu osoak jakin bedi bermeotar batek leia biziaren bultzadaz gaztelu bat egingo dauala airean, eta sekulako basilika bat lurrean

Uriguren tar Zenon
Pasiotarra



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (V)

I Blankaren bizi kondairatik datorrena.

Monikako Konde Kabreratar Bernardok be gura eban beragaz ezkondu zedin, ta I Blanka indarrez arrapatu gurean ibili zan.

1.411ko Loraillaren illean Kabreratar Bernardo bere matxintasunezko alegiñagaitik epaitu ebenean, erregeen aolkularitzazko erakundeak I Blanka erregiñagaitik esan eban, erregiñak Siziliako eztabaidagitik bere Nafarroako senideai sekula ez eutsela eskatu laguntzarik, auek Siziliako arazoak ez ebelako euki ezer ikusirik.

1.412an Bagillaren 28an Aragoiko errege Antekerako I Fernandok, XIII In Aita Santu Beneditoren laguntzagaz eta Kaspen egin ziran antolabideakaz, beraganatu eban Siziliako erregetza.

Eta 1.412ko Azaroaren 21ean Siziliako gortekoak koroatu eben Aragoiko I Fernando Siziliako errege lez.

1.413an Uztaillako illean I Blankaren aizta Juana, Foix Konderriaren jabe eta Nafar erriñuaren ondorengo zarrena seme/alaba barik il zanean, guztiz aldatu ziran I Blankaren bizi ekintzak, bere aita III In Karlosek, bere ondora joateko eskatu eutsonean.

1.415eko Jorraillan I Blankak, ia 13 urte ordezkot lanetan ibilita urten eban Siziliatik, Nafarroaren gorte-



koak aukeratu ebazan, Pierres de Peraltatar Mosen eta Asiain-tar Juanen laguntzagaz.

1.416an Urrillaren 28an Nafarroako errege III In Karlosek Oli-ten, bere alabaren eskaerari baimena emonda gero, Nafarroaren erregetzazko ondorengo lez izendatuta, ziñez itz emon bear izan eutson I Blankak.

Eta 1.419ko Azaroaren 5ean Nafartar gortekoak, Aragoiko erregearen seme Peñafeleko Duke, Mayorgako Konde, Larako jaun eta geroago errege izango zan II In Juanegaz atondu eben I Blankaren ezkontza, Nafarroako erregetzaren alde euki bear ebezan jabetasunezko baldintzarekin.



1.419an Abenduaren 5ean Oliten, ordezkotza bidez ezkondu ziran.

Eta 1.420an Bagillaren 18an Iruñako Ama Zuriaren Eleiz Nagusian ezkondu ziran eurak, I Blankak 35 urte zituela⁽¹⁾ eta II In Juanek 22 urtegaz (1.397an Bagillaren 29an Kanoko Medinan jaioa).

Euki zituzen seme/alabak, oneixek ziran:

1.421-1.461eko urte bitartea bizi zan IVn Karlos, Bianako Lenengo printzea, Borgoñako Dukea ta III In Feliperen loba Kleberis´tar Ines´ekin ezkondata egon zana.

1.423-1.425eko urte bitartean bizi zan Juana.

1.424-1.464ko urte bitartean bizi zan Blanka, eta Gaztela Leongo errege izan zan IVn Enrikegaz ezkondata egon zana.

1.425-1.479ko urte bitartean bizi zan Leonor, Nafarroako erregetzan ondorengoa zana eta Foix´eko IVn Gaston, Foixeko Konde ta Bearn´eko Kondearen ordezkoa izan zanarekin ezkondata egon zana.

Edestiaren aria ostera artuta.

1.421eko Lorailaren 29an I Blanka ta II In Juan Peñafilen egon zirala, jaio jakien lenengo seme Karlos, eta 1.419ko ur-

tean ezarri ziran baldintzakaz, bera izendatu eben Nafarroaren erregetzazko ondorengoa, ama, I Blanka ilten zanean.

Jaiotzatik lau illabetera, Olmedoko Urian bateatu eben IVn Karlos, bere besoetako-aitak edo aitabitxiak, Gaztelako errege II In Juan aita ta Luna´tar Albaro Gaztelako Kondestablea.

1.422ko urtean I Blankaren aita Nafarroako errege III In Karlosek deituta, irurak joan ziran Nafarroako errege Tafalla ta Oliteko errege jauregietan bizitzera.

1.423an Urtarrillaren 20an Tudelan izenpetu zan agiriagaitik, III In Karlos Nafarroako erregeak, Bianako Printzerria sortu eban, bere biloba Karlos izanda erakunde orren leen printze edo ondorengoa.

Eta urte onetan jaio zan bigarren alaba Juana.

1.424ko Bagillaren 9an, Blanka irugarren alaba jaio jakien.

(1) Baleiteke, 38 euki ebazan urteak eukitea 35 baiño.

1.425ean Otsaillaren 2an Leonor jaio jakien.

1.425ean Dagonillaren 22an il jakien Juana alaba nagusia.

Eta 1.425ean Iraillaren 8an, I Blankaren aita Nafarroako errege III In Karlos Biotz Onekua ilda ostean, I Blanka geratu zan Nafarroako erregiña lez.

1.425eko Azaroaren 29an geratu zan izendatuta I In Juan, Ribagorza ta Balentziako Konde lez.

I Blankaren bizitza Nafarroako erregiña lez.

I Blankaren bigarren senarra Aragoiko I In Juan onek, bera baiño 10-12⁽¹⁾ urte gazteago izanez gain, izakera gogorrekua izan zan, ta Aragoi ta Gaztelako lurraldetan euki zituzen jabetasun aundien norkeriagaz, Gaztelako lurraldeetan sarritan euki ebazan borrokazko esku sartzeak.



1.425ean Iraillaren 8an il zan Nafarroako errege III In Karlos “Biotz-Andikua” eta bertan geratu zan izendatuta I Blanka Nafarroako erregiña lez.

1.427an Dagonillaren 9an Nafarroako gorteak barriztu eben ziñezpena IV n Karlosen alde ondorengo errege lez.

1.428/1.429ko urte artean I In Juanek bere guda indar alegiñakin, eta Aragoiko mugaren lurralde batzuk galduta gero, gaztelarrek andik bota eben orduan, deitu eutson I Blankak Nafarroako errege lez koroatzea atzeratzen euki ebalako, eta alan urbildu zan bere ondora.

1.429an Lorailaren 15ean lau urte beranduago erregetzara igon ebanetik koroatu ebezan Iruñako Eleiz Nagusian Nafarroako I Blanka ta Aragoiko I In Juan. I In Juan erregiñaren ezkon-lagun lez.

1.439an Otsaillaren 17an I Blanka Nafarroako erregiñak il orduko bere borondatezko azkenai idatzi eban agirian, bere seme IV n Karloseri eskatzen eutson: ez egiala erregetzazko ardurarik artu, bere aita I In Juanek esan arte, eta I Blanka ama il zanean, aitaren ordezko agintaritzza artuko eban.

1.441ean Jorraillaren 1ean il zan I Blanka Nafarroako erregiña, bere alaba I In Blanka Gaztelako IV n enrikegaz Epailaren 31n ezkondata urrengo egunean, ta Nafartar gorteakoak Jorraillaren 3an Segobian Niebako errian, Erregearen Santa Maria Eleizan illobiratu eben.

Bere arri-illobia gaur, beren lekutik kenduta Kukullaren San Millaneko gela illun baten baztertuta dago, beste Napar errege askoren antzean.

Aragoiko errege I In Juan “Guzurti-Aundia”ren bizi kondaira.

Antekerako I Fernando eta Gaztelako Urrakatar Leonorren semea izan zan.

1.397ko Bagillaren 29an, Gaztelako Medina del Kanpon jaio zan, eta bere bizitzan artu ebazan andiki izenak: 1.425-1.479 urte bitartean Ribagorzako Kondea, Peñafieleko Duke ta Nafarroako errege, eta 1.458-1.479ko urte bitartean, Aragoi, Zerdeña ta Siziliako errege.

1.427ko dagonillaren 9an I In Juanek, bere begiko alaba izan zan Leonor izendatu eban ondorengo Iruñako gorteetan, bere beste seme IV n Karlos eta alaba I In Blankarekin orren ostean, maltzur eta guzurraren azpikerizko jokuetan asita.

1.429ko udan, I In Juan “Guzurti Andi” onek, antza, Nafarroako jaurkintzan ez ebalako euki zeregiñik, bere Aragoiko anaiaren diru ta ondasunezko irabazkiari laguntzarren,

(1) I Blankaren adiñetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako.



Enareseko ibarretatik sartu zan Gaztelako lurraldeetara, eta Jadrakeko inguruan borroka antolatzen egoala, bere arreba Maria, Gaztelako II In Juanegaz ezkondu egin zana sartu zan lez bitartean, or amaitu ziran Gaztelako lurraldeetatik Aragoiko II In Juanek egingo zituzten txangoak, eta urrengo urterako Gaztelako II In Juanen aurka antolatuta euki eban guda.

1.435eko urtean laguntza bardiñean ibili zan bere anai Aragoiko Vn Alfonso erregeak Napoleseko erreinuaren jabetasuna lortu egian, baiña utsegite andi baten amaitu zan.

1.436an Uztaillaren 30ean II In Juanek, Leonor bere begikotasunezko alaba ariñautik Foixeko IVn Gaston Kondeagaz egin eban ezkontzeko alkargoa baieztatuten dau, berentzat ezkon-sari lez Miranda, Larraga eta Falzeseko urien kontuan 50.000 florin emonda.

Eta guri geien arduratu egiten gaituelako, bere bizi kondaira, bere emazte I Blanka 1.441eko urtean il zanetik artuko dogu.

II In Juan bera izan zan bere 82 urtekin XIV-XVeko gizaldi bitartean, geiago bizi edo ta zarrenetari-ko erregea izango zana, 1.479an Urtarrillaren 20an Bartzelonan il zan arte.

1.441eko Jorraillaren 1ean, I Blanka il zanetik eta berak azkenai lez bere seme IVn Karloseri borondatez idatzita agindu eutsonegagaz, II In Juanek naspilduta euki eban bere seme IVn Karlos Nafarroaren erregetzazko zeregiñetan, IVn Karlos bere semea ezkeronekoa eta esanekoa izanez gain zordun be agertzen zalako, agindu orreik I Blanka amaren esanetan eroan ebazan, arik eta II In Juan aitak ostera ezkontzen zala esan arte.

1.442ko urtean eta I Blanka ama il zan ostetik II In Juanek, Leonor bere alaba txikerra eta Foixeko Gaston Kondea ezkondu ebazan, berau bere senarraz Bearn´era bizitzen joanda.

1.444ko Jorraillan ezkondu zan Nafarroako II In Juan, Gaztelako amiral Enrikez´tar Fradike, ta Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Marianaren alaba, Enrikez eta Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Juanagaz 19 urte euki ebazala, bere aundizale, ospezale ta dana gura ebenagaz.

Emendik aurrera ta I Blankaren azkenai bidez, II In Juanen jardunbidea bere seme IVn Karlosegaz gogortu egin zan ezin besterarte, bere emazte Enrikeztar Juana Lizarrara bialduta, IVn Karlosten errege-ordezko zeregiñak nastu ta oztopatze-ko alegiñean, Nafartar erritarren artean asarre aundiak sortu ebana, eta IVn Karlos bere aitaren aurka asi zanean al eben gogortasunean, Nafartar erria zati bitan banandu ebana, beamontarrak Karlosten alde kokatuta, eta agramontarrak II In Juanen alde, 1.451n anaien arteko gudara eroan ebazanak.

1.445eko urtea baiña ariñautik II In Juanek, bere Gaztelako errege II In Juan koñatua ta onen guda agintari nagusi Albaro de Lunagaz, betiko lurraldearen nagusitasunezko jabetasunetan ibilita, Atienza ta Torrijako Uriak artu ebazan, baiña urte onetan talde biak Olmedon aurrez aurre aurkeztu ziranean, Nafarroako II In Juanek naita Aragoitar guda lozteekaz batera egon, astiñaldi gogorra artu eban, eta borroka orregaz amaitu jakien aragoitarrai gaztelaniako gauzatan euki ebezan indarrezko eragipen guztiak.

Nafartarren anai-arteko guda.

IVn Karlos Gaztelara joan zan, Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestablearen laguntza eskatzera, oneik argi itxita, eurak ez zirala Nafarroagaitik borrokatzen, IIn Juanen aurka baiño, eta gaiñera zirikatzen dautsoe, aitak emoten eutson arrera txar ta otzagaitik, obeto ibiliko zala gaztelarrakin alkargotuta, bide batez oartuazota, zelan bere ama ordea aurdun egonda, ekarriko eben ondorengotasunagaz.

Ondoren, Asturiaseko Printzeak Albaro de Luna Kondestableari itaun au egin eutson: “Guk baiña, zer lortzen dogu Nafartarrai laguntzeagaz?”. Kondestable jaunak erantzun da: “izten dautsagun 40 urteko anaiguda”.

1.451n Iraillaren 8an IVn Karlosek euskaraz, alkartasunezko ituna sinatu egiten dau, eta Asturiaseko printzea ta Luna Kondestable oneik, ingurata euki eben Buradoneko gaztelua itzultzen dautsoe.

1.451ean Urrillaren 23an borrokatu ziran talde biak Aibarreko zelaietan, eta IVn Karlosek astiñaldi andia artuta, IIn Juanek atxilotu eban Beaumont´tar Luis Nafartar Kondestableagaz batera.

1.452ean Epaillaren 10ean Enrikeztar Juana IVn Karlosen ama ordea, ariñeketan urten bear izan eben Lizarratik, bere semea Aragoiko legeak agintzen eben eran, Aragoien jaio zedin, eta or ibili zan larri, Nafarroaren mugako Sos erritxoan jaio zalako egun orretan, gero Aragoiko IIn Fernando katolikoa izango zana.

Eta Juana Enrikez onek, euken amurru aundiena erakutsiko eban emendik aurrera, bere seme/alaba ordearen aurka, Leonor txikerrenagaz izan



ezik, bere senar IIn Juaneri alegiñ orregaz bultzatuta, IVn Karlos eta IIn Blanka bere seme/alaba oneik erregetzatik alboratu egiezen, eta 1.455eko urtean IIn Juanek Nafar-erregetzaren ondorengoak ez diran lez aldarrikatu ondoren, biak pozoituta il ebazan.

Guda au ezan amaituko arik eta 1.512an IIn Fernando katolikua Iruña menperatuta, I Karlosek 1.522an Mayan, ta 1.523an Ondarribin, Nafartar askatasunezko Ikurrak menperatu arte.

Atutxa´tar Paul
Zornotzan 2.015eko urtean Epaillaren 17´an



E u s k a l a s t e a

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2015-11-23 ETXEBARRIA Juan Manuel – EUSKAL MITOAK ETA EUSKERA

2015-11-24 URANDA Erika – 50. Urrena DURANGOko Azoka

2015-11-25 LARREA Angel – MEMORIA HISTORIKOA

2015-11-26 BARROETA Klaudio – EUSKAL GARRAIOAKç

2015-11 27 ATUTXA Paulo – GAURKO DEMOKRAZIAREN EZIÑA



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

Ordua: **Zazpiretan**

EUSKERAZALEAK

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmaturikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1.ª	300 euro	4.ª	120 euro
2.ª	240 euro	5.ª	60 euro
3.ª	180 euro		
- Ipuiñak izen ordegaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian


..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **“ZER”**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

A scenic autumn forest with a stream and a scroll overlay. The forest floor is covered in fallen red and orange leaves. A stream flows through the center of the forest, surrounded by mossy tree roots. The trees are mostly bare, with some yellow leaves still clinging to the branches. The sky is overcast and grey.

**Barrengorriak, ondoak, urrak ta gaztainak
dira garai onetan oparo ta bikainak
paseo bat egin eta gero
saskia bete bueltatzen gara bero!**

**Ortzadarra ostoetan irudikatua
orbelaren gainean dabil basakatua
egaztiak badoaz... Ai au pena!
orrelakoa baita gure udazkena!**

**Arkumeak jaiotzen dira baserrietan
ordua aldatzen da gure ordularietan
gau luzeagotan... Amestera!
Bai zoragarria gure udazkena,
bai zoragarria gure udazkena!**

Oltzarreta (Zeanuri)